



**Kale kantalian** Garikoitz Del Barrio gerriko beltza  
**Kirola** Gipuzkoako Bola Txapelketa San Andresen zapatuan

# pitpilean

SORALUZEKO  
HAMABOSTEKARIA  
131. alea, 2006ko  
apirilaren 7an



ETAren su-etena  
Bake itxaropena  
zabaldu da gizartean



nolako ikasketak, halako etorkizuna

**Andoitz Peñagarikano,**  
Mekanikan Industri Ingeniaritza Teknikoko ikaslea,  
"HIFA Irizpideen Aplikazioa" Proiektua,  
Ulma Packaging enpresan.

*"Praktiketan arazo errealei aurre egin  
behar diezu, eta irtenbide erreala bilatu"*



[www.mondragon.edu](http://www.mondragon.edu)

# Noraezean



ELENE ALBERDI DE LA HAYA

Pobrezia, gosea, guda, indarkeria, gaixotasuna eta beste hainbat gaitzetatik ihesi, sorterrria atzean utzi eta, Europa izeneko "paradisura" bidean, bidaia luze eta arriskutsua hasten duten emakume, gizon eta haurrak ekarri nahi nituzke gogora lerro gutxi hauetan.

Oilo narrua jartzeko moduko gertakariak jazo dira iragan hilabeteotan. Etengabea da pateren etorrera eta etengabea ere milaka eta milaka lagunen sufrimendua. Iaz kaleratutako txosten baten arabera, 1.200 etorkinetik gora hil ziren 2005ean Atlantikoko uretan Mauritaniatik Kanariar Uharteetara iritsi nahian, eta, egunak joan egunak etorri, hilotzak topatzen dituzte Itsaso gorrian. Ikaratzeko modukoa.

Egunotan, 600 etorkin inguru daraman ontzi bat izan dute hizpide komunikabideek. Itsasoan noraezean dabilen ontzi fantasma. Atzetik dabilta, baina ez dago arrasto izpirik, Atlantikoak irentsi balitu bezala. Eta, bien bitartean, badira etorkinon kontura zorroa diruz betetzen dutenak.

## ZER TOPATZEN DUTE AMETSETAKO LUR HONETAN? ATEAK IXTEN DIZKIEN GIZARTEA.

Samaldan iristen diren etorkinak ikusten ohituta gaude telebistan edota egunkarrietan. Mantatxo soinean eta begirada galduta, jendez gainezka dauden aterpetxetara eramaten dituzte erreskate taldeek. Irudi horiek ikustean, une batez hunkitzen gara, une batez...berehala itzultzen baikara gure errealitatera, gure mundura, Aste Santuetako oporrak buru belarri antolatuzera, esaterako. Gauean, iluntasunaren babesean, area fineko hondartzetara heltzen dira ehunka etorkin goseak eta egarriak jota. Beste askok, ordea, hondartza horietan igaroko dituzte oporrok eguzkipean, neu tartean. Hau mundu aldrebesa.

Gure artean ditugun etorkinetatik infernu hori zenbatek igaro duten galdetzen diot neure buruari. Merezki ote du? Argi dago baietz. Baina, zer topatzen dute ametsetako lur honetan? Ateak ixten dizkien gizartea, aberriratzeko aginduak... Ametsa amesgaizto bihurtzen da. Noraezean itsasoan, noraezean "paradisuan". Halere, ez omen da euren herrialdean utzi dutena baino okerragoa, ezinezkoa iruditu arren. Egizue kontu.



### Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea  
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze  
Telefona 943 75 13 04  
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU  
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

### Erredakzio burua:

Egoitz Unamuno  
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan,  
Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxina, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno

### Publizitatea:

Ugaitz Catalan  
Logotipoa: Jon Gabilondo  
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.920 ale  
Inprimategia: Gertu Koop.  
Diseinua eta maketazioa: BOROBILE Zerbitzu Grafikoak  
I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldirikako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO  
UDALA



EUSKO  
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



## ERREPORTAIA

*Marxoaren 22an ETAk iragarritako su-eten iraunkorrek aparteko itzaropena piztu du euskal gizartean. Aurrrekoetan ez bezala, oraingoan alderdi gehienek ikusten dute begi onez bake prozesua.*

## Zorion agurrak



### Ainhitze Arantzeta

Apirilaren 1ian, 31 urte  
**Zorionak!!!**  
etxekoan partetik.



### Jon Oregi

Apirilaren 5ian, 4 urte  
**Zorionak eta**  
muxu haundi bat  
etxekoan partez.



### Lore Leturiondo

Apirilaren 11an, urte 1  
**Zorionak eta**  
muxu haundi bat  
etxeko guztien  
partez !!



### Gaizka Madrid

Apirilaren 8xan, 3 urte  
**Zorionak txikito!!** Muxu haundi bat Amaia, Iker, Leire eta etxekuen partez.



### Iker Etxabe

Apirilaren 11an, 7 urte  
**Zorionak mutiltxo!** Ederki pasa zure egunian Leire, Gaizka, Amaia eta etxekuen partez.



### Ivan Couto

Apirilaren 4an, urte 1  
**Zorionak**  
gurasoak eta  
familiaren partetik!



### Nerea Alvarez de Eulate

Apirilaren 8xan, 13 urte  
**Zorionak printzesa!** Muxu haundi bat eta ondo pasau etxekuen eta Arrateren partez!



### Igor Bedaio Gonzalez

Apirilaren 18xan, 3 urte  
**Zorionak**  
familixian partetik.



### Markel Oregi

Apirilaren 13an, 3 urte  
**Zorionak txiki!!**  
Muxu pila bat familia guztia eta bizilagunen partez!



### Raket Criado eta Julio Rascón

Martxoaren 30ian, 29 urte  
Martxoaren 20xan, 28 urte  
**Zorionak** etxekuen partetik eta muxutxo bat Trearen partez!!



### Ekain Larrañaga eta Mª Jesus Arrizabalaga

Apirilaren 21ian, 2 urte  
Apirilaren 17xan, 61 urte  
**Zorionak amama eta Ekaintxo!!** Ondo ondo pasau zuen urtebetetzian, etxeko danon partez.  
Muxuak!!!

## Gutunak

### Tipi tapa independentzian topa! Auzolanaz, Gazte Topagunea!

Gazteok kolektibo bezala antolatuta eta autogestionatuz, gauza mordoa egiteko gai garela askotan erakutsi dugu txikia bezain handia den gure Euskal Herri honetan.

Belaunaldiz belaunaldi, errelebutako lasterketan bezala, gazte batzuk beste batzuei emandako errelebuta bailitzan, konpromiso eta helburu zehatz bat transmititu izan dugu: Independentziaren aldarrikapenera ahalik eta gazte gehien biltzekoa, alegia.

12 urte pasa dira jada lehenengo Gazte Topagunea antolatuta zutenetik, 6 edizio utzi ditugu atzean, horietan guz-

tietan milaka (eta milaka diogunean ez dugu handizkatzen) izan gara modu batean edo bestean lan egin dugunak. Aurtengo topagunea ere 4 egunetako egitasmoa baino askoz gehiago izango da, horren atzean filosofia, konpromiso eta sinismen sendo bat baitago.

Gazteok Euskal Herriaren askapen prozesuan egiten dugunaren erakustaldi erraldoia bihurtu da, izaera propioa eskuratu duen ekimena da.

Apirilaren 14tik 17ra denok Etxarri!

Soraluzeko SEGI



Informazio gehiago  
900 110 111 doako telefonon  
www.gipuzkoa.net/gazteria  
Buletinen harpidetza !!!

## Lana

### 4 Udaltzain

Oñatiko Udala. Oñatiko Udalean 4 udaltzain-lanpostu betetzeko oposizioa. 18 urte beteta izatea eta 32 urte bete gabe izatea. Eskola Graduatua, Lehen mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea. 2. hizkuntza-eskakizuna. B1 motako gidabaimena, eta praktikaldian BTP lortu behar da.  
Baldintza fisikoak I. **Epea:** 2006-04-18.  
**Telefonoa:** 943 78 04 11.

### Administrari laguntzaile bat

Debagoieneko Mankomunitatea. Arrasate. Lanaldi erdiko administrari laguntzaile lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Eskola graduatua, LH1 edo titulu baliokidea izatea. 3.HE, derrigorrezkoa. **Epea:** 2006-04-18. **Telefonoa:** 943 79 33 89.

### Hernaniko Udalean psikologoak kontratatze lehiaketa

Hernaniko Udala. Arrisku egoeran dauden eta Hernaniko Udalean diagnostikatu diren adingabeen familiak tratatzeko egitaraua burutuko duten psikologoak kontratatze lehiaketa.  
**Epea:** 2006-04-14.  
**Telefonoa:** 943 33 70 00.

## Ekintzak

### GAY + LES Bideoforuma "Tormenta de Verano".

EHGAM. Emanaldia Donostiako Amarako Kultura Etxean izango da, 19:30ean. **Eguna:** 2006-04-25.

### Gazte oporraldiak 2006

Gipuzkoako Foru Aldundia. 14tik 17 urtera bitarteko adina duten gazteak, 1989tik 1992ra bitartean jaioak.  
**Epea:** 2006ko apirilaren 20tik 28ra.  
**Telefonoa:** 943 44 59 80.  
**http://www.gipuzkoa.net/oporraldi**

### Jaiotakoak

AIARA CORTÉS CALLES


### Hildakoak

JESÚS UNAMUNO EGUREN

## Zer irizten dotsazu?

Martxoaren 22an ETak su eten iragarri zuen eta 24tik aurrera indarrean dago. Su etenak itxaropen handia piztu du gizartean eta politikarien artean.

# Nola jaso duzu ETaren su etenaren iragarpena? Eta orain zer?



**Gino Romero**  
15 urte, ikaslia

Honek sinismen gehixao emoten dotsa bake bide horri, lehen arazo pilia egoten ziralako eta denbora guztian poliziaz inguratuta gendelako. Nik uste, oin gakua berba egittia eta presuen askatasunian daguala.



**Teresa Prol**  
39 urte, etxekoandria

Fenomeno pentsau jata, danok nahi doguna izan baitta. Oso goiz da zeoze esateko, baina nik uste dot igarriko dala diferentzia, batez be la-saitasun aldetik.



**Leire Elizburu**  
17 urte, ikaslia

Uste dot lagunduko dabela, baina politikuak euren aldetik be jarri bihar dabe. Gainera hola ez bada su etena amaitzeko arriskua dago. Oin berbetan hasi biharko leukie danak, eta horretarako prest ez egotia atzera pauso bat izan leike.



**Luis Suárez**  
43 urte, igeltserua

Esperantza asko zabaldu dit-tu, azkenaldixan bildurra nabarixa zan eta. Nik aldaketia nabarrittu dot komunikabide eta jende artian. Terrorismuakin amaittuta, danon obligaziñua da egoeria aldaketzia, herrixa da sufritzen daguana eta.



**Manu García**  
58 urte, erretiratua

Lagunduko dau, nahiz eta gutxi izan bake bide horretan hasteko lain bada. Su-etenak eragindako aldaketia sumatzeko ondio goiz da, baina denporiakin igual igarriko da.



**Ane Osoro**  
15 urte, ikaslia

Su-etenak zeoze lagunduko dau, jentia trankilau egoten edo. Bakerako itxaropena badaguala uste dot, baina norberan harrotasuna alde batera lagata. Herrixan iritzixa kontuan hartuta elkarrizketia da bultzatu bihar dana.

**KREA**  
Barruko Arkitektura eta Dekorazioa

AINHOA LETE IRASUEGI  
Tel.: 635731268

GAZTELUPE  
taberna

tel: 943 75 20 81



# Aste Santuan kristau ospakizunak izango dira

Apirilaren 6tik 16ra bitartean Sorluzeko elizbarrutiak urteroko egitaraua prestatu du bertan parte hartu nahi duten fededunentzat. Ospakizunak apirilaren 6an hasiko dira Berradiskidetze Sakramentua-rekin, atsaldeko 8etan. Hilaren 9an Erramu Domekan, meza (erresidentzian 10etan eta elizan 11-12:30etan), bedeinkapena eta prozesioa egingo dira. Ostegun santuan, apirilak 13, bakarkako penitentzia izango da 10etatik 11etara. Arratsaldean, berriz, meza eta ordu santua. Hurrengo egunean, Ostiral Santuan, Gurutz bidea egingo da Ezoziko ermitaraino goi-



zako 9etan eta arratsaldean Jaunen pasioa ospatuko da. Apirilaren 15ean Pazko bigilia gaueko 10etan eta astesantuko ospakizunak berpizte igande egunean amaituko dira 10:30etako (zaharren egoitzan) eta 12etako mezarekin.

## Kooperatibaren batzarra 22an

Apirilaren 22an, osteguna, iluntziko 8:30etan lehen deialdiz eta 9etan bigarren deialdiz, ohiko batzarra izango dute kooperatibako bazkideek Kalebarreneko kapillan. Besteak beste, Batzorde Zuzendariaren eta Kontseilu Zaindariaren aukeraketa, eta P.E.R.ak kooperatiban duen eragina izango dituzte aztergai.

## Gazte Topagunearen aurkezpena

Joan zen eguaztenean 2006ko Gazte Topagunearen aurkezpena egin zuen SEGIk Gaztetxean. Aurtengo Topagunea Etxarrin egingo da apirilaren 14an hasi eta 17ra bitartean. "Tipi tapa independentzian Topa!" lemapean egingo da eta orainartean gertatu den moduan milaka gazte batuko direnaren itxaropena dute. Sarrerak lortzeko Gaztetxera edo Arranora jo daiteke.



# Reglero Itxaropenako lehendakari berria



Itxaropena Jubilatuetxeko urteko batzarrean, bazkideek Isabelino Reglero aukeratu zuten Itxaropenako zuzendari kargurako. 3 ziren presidente izateko hautagaiak: Aristi, azken 10 urteetako presidentea, Jon Antxon Altuna eta Isabelino Reglero. Bozketan, Isabelino Reglerok 114 boto jaso zituen.

## Etxabe Harategia



Euskal txabalkia Bildotsa

Merkatu Plaza 6-7 Postuak Telef. 943752375

**IRATXO GOXOTEGIA**

EGUNKARIA ETXERA ERAMATEN DIZUGU GEHIAGO ORDAINDU GABE

ETXABURUETA, 4 20590 SORALUZE tlf: 943 75 13 20

## argitek

ELETRIZITATEA

David Rascón  
607 486 428

Instalazio eta  
erreforma  
elektrikoak etxebizitza  
eta enpreseetan

Baltegieta, 17 • 20590 SORALUZE



## SAN ANDRES Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak Sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea  
Tfnoa 943 75 16 46

# Alkateak PPko zinegotziari erantzun dio



PPko Francisco Javier Núñezek beragatik esandakoei erantzuteko, prentsurrean agertu zen Oskar Gabilondo alkatea ostegunean. Alka-

teak Nuñezek bere datuak zalantzan jarri izana kritikatu zuen: "nik eskaintako datuak ofizialak dira, Ongizate Sailekoak, eta aurrekontuak bezala publikoak". Nuñez ez dela "berezia" eta aurrekontuak aztertzeko "gainontzeko taldeek bezala, 15 egun" izan zituela esan zuen. Polemikarekin bukatzeko, PPko ordezkaria batzordeetara ez dela azaltzen errepikatu zuen: "Nik zuzentzen dudana Enplegu eta pertsonal Batzordera azken aldiz 2004ko maiatzean agertu zen".

# Luxuzko armeri buruzko liburu berria aurkeztu da

Jose Maria Pelaez Valle Vigoko unibertsitateko irakasleak "Armeria Vasca de lujo en el siglo XIX" liburua aurkeztu zuen martxoaren 21ean Eibarko Portalean. Pelaez irakasleak 40 urte baino gehiago eman ditu aintzinako armagintza ikertzen eta ondo daki inguruotako armagintzaren berri. Euskal Herriko armagintzan, Plazentzian eta Eibarren garatu omen zen gehien luxuzko armagintza, batez ere Eibarren.



## Aberri Eguna apirilaren 16an

Ohiturari jarraituz, pazko igandean (apirilaren 16an) ospatuko dute alderdi abertzaleek aberri eguna. Aurten ez da ekitaldirik aurreikusten herrian.



## BOE gunean zundaketak egingo dituzte

Udal Gobernuak Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikiko diren gunean zundaketak egiteko baimena eman zion martxoaren 27ko Udal Batzarrean Ornak Egin eraikuntza enpresari. Zundaketa hauek, Euroestudios enpresak egingo duen azterketa geotekniko burutzeko erabiliko da. Etorkizun hurbilean 24 etxebizitza sozial eta 34 babes ofizialeko etxebizitza eraikitzeko asmoa du Jaurlaritzak bertan.

### PIL-PILEAN Euskara Elkartean

## BAZKIDEEN URTEKO BATZAR OROKORRA

#### AZTERGAIA

1. Lehendakariaren agurra.
2. 2005eko memoria eta balantze ekonomikoa.
3. 2006ko egitasmoa eta aurrekontua.
4. Galdera-erantzunak.

#### EGUNA

Apirilaren 22a, zapatua.

#### ORDUA

11:00etan.

#### TOKIA

Kirodegiko Erakusketa Gela.

*Pil-pilean Euskara Elkarteko bazkide guztiok zaudete gonbidatuta.*

*Ondoren bazkaria izango da Txurruka jatetxean.*

*Izena emateko azken eguna apirilaren 18a izango da.*

 **pilpilean** EUSKARA ELKARTEA



ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



*Diseinua eta Sormena*

Polígono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 **BERGARA** (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

# ETAren su etena, plazentziatarren ikuspegitik

*Martxoaren 22an ETAK iragarritako su eten iraukorrak aparteko itxaropena piztu du euskal gizartean. Aurrrekoetan ez bezala, oraingoan alderdi gehienek ikusten dute begi onez bake prozesua. Su-etenak Plazentzian izan duen eragina jaso nahi izan dugu orriotan. Udal taldeen eta gizarteko hiru ordezkariaren iritziak jaso ditugu. ETArek sorreratik gure herrian izandako gertaerarik esanguratsuenak ere bildu ditugu.*



## XABIER IÑURRIETA

*Soraluzeko  
"GESTO POR LA PAZ"-eko  
kidea*

Bere iritziak ETArek su eten iraukorra-  
ren iragarpenarekin, "badirudi iraukor-  
kor" hitzak bere esanahi propioa bete  
leikela, aurreko abagaduneetan (Argel,  
Lizarrar-Garazi) gertatu ez zana". Bere  
ustez itxaropena "Zapateroren gober-  
nuak esandakoak eta Batasunaren jar-  
rakerak "ekarri diote gizarteari, "nahiz  
eta haien esanetan prozesua luzea eta  
zailtasunez bete izango den". Iñurrietak  
"askatasun prozesu" bezala sentitzen  
du "bake prozesua" deritzana, bere esa-  
netan "zailenetan zailena" gizarteak  
frankismotik gaur arte "ETAren eraso-  
pian egin bihar izan daben bidia" izan  
baita. Normalizazio mahaia dela eta,  
alderdiei eskatzen die "kontuan hartu  
deixela herri hau hiritarrez osatuta da-  
guala, aniztasuna dabela ezaugarriarik  
nabarmenena, eta beraz lan egin deixela  
danontzat normala izango dan proiektu  
baten. Bestela, zer da normalizaziñua?"

## JOSEAN ARLUZIAGA

*18 urtez preso  
egona*

18 urte egin zituen kartzelan. 1999. urtean irten  
zuen kartzelatik. Poz handia hartu zuen su ete-  
naren berria entzun zuenean eta preso lagunekin  
gogoratu zen: "kartzelan pasautako momentu as-  
kokin akordau nitzan eta barruko lagunekin. Se-  
guru nago eurak ni baino pozixago darena". Su-  
etenarekin espetxeetako egoera "pixkat" hobetuko dala dio "hola pasau  
da aurreko su-etenekin, girua lasaitu egitten da eta flexibilitate gehixago  
egoten da; apurto izan danian, ostera, gogortu". Presoen etorkizunaren in-  
guruan Arluziagak uste du etxera ekarri bihar direla, "Euskal Herrira hur-  
biltzia bentajarako izango da, baina nere ustez danak etxera ekarri bihar  
dira, lehenbailehen". Bake prozesurako, Madrilgo eta Pariseko gobernu-  
ei "errespetua" eskatzen die, "ia danon artian lortzen dogun herri honen  
ahotsa entzunaraztia."

## LUIS GOMEZ

*Soraluzeko abadea*

"Pozez" hartu du su-etena, "irtenbiderako ildo  
bat" irekitzen duelako eta aukera ematen duelako  
"gure gatazka guztietaz hitz egiteko". Bere esa-  
netan gatazka asko ditugu, "politikuz aparte  
linguistikua be badago, esate baterako". Gatazka  
guztiak "agerian" jartzeko unea iritsi dela uste  
du Luisek, "aitzakiarik" ez dagoela elkarrizketari ekiteko, eta "danon artian  
konponbidia bilatu bihar dogu", "danon artian" bi hitz horiek azpimarratuz,  
"inposaketarik barik". Alderdi guztiek eman beharko dutela zerbaitetan  
amore uste du Luisek: "ontasunera juateko, danon ontasunera, gauza batzuk  
bidian laga biharko dira".



## GATAZKAREN ONDORIOAK SORALUZEN: ETAREN SORRERATIK GAUR ARTE

**Gertakaririk larrienak gogorazi nahi izan ditugu:**

### LEHERKETAK

ETAk herrian egindako ekin-tzen artean entzutetsuenak Sindikato Verticalekoa, Banco Vizcayakoa eta azkena GOL enpresakoa, iaz. Alderdi Sozialistaren egoitza ere erasotu zuten tiroz.

### HILDAKOAK

- 1976an ETAk Vicente "Julian" Soria Blasco soraluze-tarra hil zuen.
- 1987an ETAk José Gómez Solís Guardia Zibileko sargentua hil zuen Gila zuz-bian.
- 1994an Anjel Irazabalbeitia "Txorta" hil zen Loiu-n Er-tzainekin izandako tiroketan.

- 1996an Luis Casares hil zen Baionako eritetxean. Errefu-xiatuta bizi zen.
- 2001ean Asier Heriz eta Iñaki Saez hil ziren auto is-tribuz Avilako espetxera bidean.
- 2005ean Juan Jose Urrutia hil zen Uruguayn errefuxia-tu zegoela.

### ATXILOTUAK

30 lagun baino gehiago.

### ERREFUXIATUAK

Eloi Uriarte.

### PRESOAK

- 4 soraluzetarrek preso ja-rraitzen dute Espainiako gartzeletan. Pedro Jose Etxeberria, Lur-des Txurruka, Anjel Murgoi-tio eta Regina Maieztegik.



## OSKAR GABILONDO

alkatea, EAJ - EA

**1.** Oso pozik hartu dogu berrixa, bai nik, bai alderdixak eta bai Udaletxe osuak. Espero genduan eta zain genden noiz ailegauko zan. Zuhurrak izan bihar dogu baina oso gogotsu eta baikor gare. Ia betirako dan eta gauzak da-nondako onera egiten daben.

**2.** Mahai baten bueltan jarri bihar dabe alderdixak eta adostasunetara heldu. Politikia bere bidetik juango da; haruntzatxuago juanez, bakoitzak bere esku daguana jarri biharko dau prozesuan laguntzeko. Herrixan ez ba-gara konpontzen...oin daukagu aukeria. Nahiko neuke alderdikeri eta diferentzia guztien gainetik giro berri bat sortzia. Udaletxetik alkartasun hori bultzatu bihar dogu alderdi desberdinen artian. Bake prozesua luzia izango da eta bide horretan emon bihar dittugu pausuk.



## PILI VALERO

BATASUNA

**1.** ETAk elkarrizketarako borondatia erakutsi dau su-etenakin eta pauso garrantzitsu bat emon dau zentzu horretan. Pelotia oin Estatuan teilatuan dago. Inpor-tantiena da Euskal Herritar guztiak gure eskubidien alde jokatzeko daukagun papela.

**2.** Hamendik aurrera, alderdi politikuen interesak alde batera laga biharko dira hau konpontzia nahi badogu. Fase berri bat baino gehixago, Anoetako proposamenan jarraipena da guretako. Batasunak OHD-a (oinarriko hitzarmen demokratikoa) sinatu zeban Euskal Herriko beste 55 eragilerekin batera, eta hor osatuko dan mahai-xan ahal danik eta eragile eta alderdirik gehixen batzia nahi dogu. Borroka armatua oztopo ikusten zeben era-giliak oin dake aukeria bide horri ekiteko .

**1.** Nola jaso duzu ETAREN su eten iraunkorraren berria?

**2.** Zer egin beharko litzateke orain bake prozesuak aurrera egin dezan?



## SOLEDAD DEL BOSQUE

PSE

**1.** Poz eta emozio haundixa hartu neban. Bidian geratu diran lagun guztiekin gogoratu nintzan. Hau ez da amaittu, hasi bakarrik egin da, baina esperantza haundixa daukat etorkizunera begira.

**2.** Hamendik aurrera asko hitz egin beharko dogu; be-netako borondatia eta desiua biharko da arazo honi bu-kaeria emateko. Ixa seguru nago terrorismua amaittu dana, oin herri hau konpontzeko ordua heldu da. Danok emon biharko dogu amore zeozetan. Edozein prezio ez da ordaindu bihar baina borondate pixkat erakutsi bai. Alderdi guztion artian konpondu bihar gara. Herri ho-netako alderdi bat be ezin da kanpoan geratu. Zerotik hastia litzateke berriz.



## FRANCISCO JAVIER NUÑEZ

PP

**1.** Indiferentziaz jaso dot berrixa. Ez dago aldaketarik ETAREN jarreran.

**2.** ETAKUAK dira zeozer egin bihar dabenak: armak laga eta desagertu. ETAk hori egiten ez daben bittartian alderdi popularrarendako ez dago aldaketarik. ETA lehengoa da eta lehengo gauza berak esaten dittu, ko-munikatuan ez dago ezer berririk. Bere jarrera, bere existentziaren justifikazioa ez da aldatu, danak berdin jarraitzen dau. Alderdi popularraren aldetik ez dago beste ezer esaterik. Ez dago terroristekin ezer hitz egi-terik eta ez da prezio politikorik ordaindu behar. ETAk armak lagatzen baditu, orduan gehiago hitz egingo ge-nuke.



**POXPOLO ETA MOKOLO PAILAZOEK** umeeekin eta hauen gurasoekin bete zuten Plaza Barria martxoaren 31n, "Bai Eskolak Euskalduntzeari!" kanpainaren baitan egindako ekitaldian.



**KONTRARGI ARGAZKI KOLEKTIBOAK** logo berria atera du bere 20. urteurrena ospatzeko. 2 hamarkada argazkigintzarekin gozatzen eta gozarazten, beste hainbeste etor daitezela!

## Aukera berriak KZgunean

Soraluzeko Kzgunek mintegi berriak prestatu ditu apirilera. Hilaren 18an, "Zure egunkaria irakurri" izeneko eskeiniko da, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara, horrela, nahi duenak interneteko egunkari desberdinen berri



izan dezan. Apirilaren 25ean, berriaz, ardoa ezagutzen ikasteko mintegia emango da, 17:00etatik 19:00etara, ardo mota desberdinei buruzko informaziorik ahalik eta zabalena jaso ahal izateko. Bi egun hauetan Kzgunea zabalik izango da arratsaldeko 16:00etatik 20:00 etara eta bertan izango da Aitor Madrid monitorea edozein zalan-tza argitzeko.



# Lakuesta

## Optika



**Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak**

**Argazkiak errebelatzen ditugu**

Santa Ana, 22 C- behea  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 30 59



# aras S.A.L.

**DIN arauak jarraituz eta zehaztasun handiz egindako torniluak**

**Industrialdea 20-21**      Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03  
**50 Posta Kutxatila**      Faxe 943 75 22 95  
20590 Soraluze



Garargardoa eta Kafea

**aukera ugaria**

943 75 00 30

## IÑAKI IÑARRA

**HARATEGI ETA URDATEGIA**

**Kalebarren 29**  
Tfnoa 943 75 12 49  
Soraluze




# Streapteasa Plaza Barrian...

Aurtengoa 9. topaketa izango da (lehen aldiz asteburu osoko kontzertazioa, ) eta motoklubekoek erakustaldi desberdinak prestatu dituzte maiatzaren 20 eta 21 erako. Besteak beste, gizonezko eta emakumezko baten streapteasa antolatzea zeukatzen pentsatuta zapatu gauerako, Plaza Barrian. Udalak streapteasea egiteko baimena ukatu die ordea. Azkenean streapteasa beharrean "performance" erotiko bat egingo dute, eta gorputzeko atalik "lizunenak" ezkutuan gordeko dira. Eman al dezake Udalak herri erdian streptease bat egiteko aukera?



## UDALA

*"Udaletxetik ezin dugu baimenik eman herri erdian streaptease bat egiteko"*

- Streapteasa badakigu non hasten den, baina nun bukatzen da?
- Dirulaguntza guk ematen dugu eta zerbait gertatzen bada, ordu horietan ez daukagu udaltzainik, gu gara horren arduradun.
- Guk ezin dugu kontrolatu ikuskizun hori eta horregatik ezin dugu baimena eman eta ardurak hartu.
- Ez da moral kontua, baina herri guztia eta sentimentu guztiak errespetatu behar dira.

## MOTOCUB

*"Ordu horietan (goizaldeko 2etan) umeak kalean badabiz erresponsabilitate hori ez da Udalarena, gurasoena baizik"*

- Moto kontzertazio guztiak streapteasarekin bukatzen dira. Hori da aukera bakarra motero ez direnak giroan gera daitezen.
- Ez da amorala, ezta anormala ere.
- Begiratu dezala nahi duenak, eta ez duenak nahi beste aldera begira dezala.
- 14-15urteko neska-mutikoak streptease batekin beldurtuko ote dira!? Gehiago beldurtuko dira motorrak arrankatzen ditugunean!



**kutxa**  
gizarte ekintza



## MENDIZABAL

OKINDEGIA

Halebarren,10  
Telefonoa 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefonoa 943 75 13 99  
SORALUZE

# Mikel eta Erik Debabarreneko taldekide bakarrak

Mikel Hernández eta Erik Azula gazteak iaz sartu ziren Eibarko Debarrena txirrindulari taldean, junior mailan. Iaz 4 txirrindularik osatzen zuten taldea; aurten, bakarrik geratu dira biak. Denboraldiari martxoaren 5ean ekin zioten eta irailera bitartean asteburuero izango dute lasterketaren bat. Azkenengoa joan den igandean izan zuten, Deban.



## Pala Txapelketa finalerdietan

Emakumezkoen pala txapelketako lehenengo kanporaketa asteburu hontan bukatuko da. 3 partidu jokatzeaz badaude ere, dagoeneko erabakita dago zein bikotetzuk jokatu dituzten final erdiak. Lehenengo taldean Ihart Arluziaga- Amaia



“Arritxa” eta Arrate Gisasola-Ainhoa Izagirre dira partidurik gehien irabazi dituztenak eta bigarrenean Juana Mari Cid-Ione Alberdi eta Sara Peñalba-Leire Makinai. Hirugarren urtea da “torturari stop” izenpean pala txapelketa hau antolatzen dena eta edizio honetan 11 bikotek jardun dute San Andresko frontoian pala partiduak jokatzen. Oraindik zehazteke dago geratzen diren 4 bikoteek noiz neurtuko dituzten indarrak

## Bola Txapelketa, San Andresen

Apirilaren 8an, zapatua, San Andresko bolatokia jokatu da Gipuzkoako bolo txapelketako 3. jardunaldia, arratsaldeko 4:30etan. Aurreko bietan, San Roken eta Lazpiurren, kurioso aritu dira eta aipatzekoa da Simun Larrañagak be-



re debutean 4. postua eskuratu zuela Lazpiurren. San Andresko taldean Iñaki “Arritxa”, Juan Cruz “Korta”, Iñigo Arrillaga, Jose Luis eta Oier Larreategi “Mendotz” arituko dira. Txurrukakoan: Jose Antonio Núñez “Txiki”, Bittor Núñez, Jon Aranda, Simun Larrañaga eta Jose Grabiél Núñez.

## EMAITZAK

### ESKU PILOTA

#### ATXOTEGI

##### Abadiñoako Txapelketan

- Elezkano - Urrutikoetxea 22
  - Atxotegi - Goikoetxea 4
- ##### GRAVN Txapelketan
- Atxotegi - Legarreta (Gipuzkoa) 14
  - Garralda - Etxeberria (Nafarroa) 22

#### LASKURAIN

- Berasaluze IX - Nalda III 22
- Apezetxea - Laskurain 13
- Martínez de Irujo - Laskurain 22
- Eugi - Apeztegia 10

Hurrengo partidua [axpepelota.com](http://axpepelota.com)-en begiratu

#### IÑAKI JAUREGI

##### Getxon

- Muguruza - Jauregi 20
- Albizuri - Bengoetxea 22

### PALA

#### Azken neurketetan

- Karle - Maialen 30
- Itziar - Maite Gara. 12
- Rosa - Maite 30
- Naroa - Onintza 22
- Sara - Leire 30
- Amaia Txanbu - Ainhitze 23
- Ainhoa Izagirre - Arrate 30
- Amaia Amor - Olaia 11

### FUTBOLA

- Sora 1 - Sanpedrotarrak 1 (erreg.)
- Mariño 1 - Sora 1 (jub.)
- Sora 8 - Urki 1 (kad.)

## AGENDA

### PELOTA

#### Domekan Bergarako frontoian (ETB1-en)

- Titin III - Goñi III
- Mtnes de Irujo - Laskurain

### FUTBOLA

#### Zapatuan 16:30etan

- Sora - Landetxa (erreg)

#### Zapatuan 18:30etan

- Ikasberri - Soraluze (jub.)

### MENDI IRTEERA

#### Apirilak 9an, domeka

- Aranguren (1.158 m.), Bolibar-Urkulu

## GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta  
pintxo  
goxo goxuak !!



| Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

## Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.  
Tlfnoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze  
GIPUZKOA

# Garikoitz Del Barrio

## Gerriko beltza judoan

5 urte zituenean hasi zen Garikoitz del Barrio gaztea judoa praktikatzen, bere aitak sortutako Soralezeko Ukaldi judo klubean. Ikas-prozesu luze baten ondoren, gerriko beltza jaztea lortu du. Bere trebetasuna herriko gaztetxo talde bati ari zaio erakusten.


*“Judoan burua argi eukitzia da garrantzitsuena, fi sikua baino gehiago”*

### BERTSO BEGIZ

*Lepotik heldu eta lurrian barrena, elkar uztartu bihar indarra ta sena. Burrukan hasi eta gero barkamena, mirestekua da hori egiten dabena.*

### ETXEBARRI

*Doinua: Pello Joxepe*



#### Nundik dakarzu judorako zaletasuna?

Aita Eibartik Plazentziara bizi izatera etorri zanian judoa erakusten hasi zan. Ume-umetatik ezagutu dot beraz giro hori. 5 urtekin hasi nitzan praktikatzen. Azkenengo urtietan eibarko Kalamua klubian nabil Plazentzian ez dago eta nere adineko jenterik

#### Ze azterketa egin dozu gerriko beltza jatzeko?

Bi proba pasau bihar izan dot: lehenenguan, puntuazio-lehiaketa bat egin genduan gerriko beltza jatzia nahi genduanon artian. Puntuaketa jakin bat lortutakuan bigarren fasea pasatzen ginan. Hamen, esaminatzaile batek kata (giltz) batzuk egin eragiten zoskun. Honek erabakitzen zeban gerriko beltza jatzia merezi genduan edo ez.

#### Ze beste grado edo gerriko dago beltzan aurretik?

Errezenetik hasita: zurixa, horixa, naranja, berdia, urdina, marroia eta beltza. Erdibideko gerrikuak be badare: zuri-horixa, hori-naranja...

#### Eta beltzan ondoren?

Beltzan barruan 5 grado edo “dan” dare. Nik lehenengua lortu dot. 6., 7. eta 8. “dan”- ak gerriko zuri-gorrixanak dira; 9 eta 10. ak berriz, gorrixanak.

#### Zenbat denbora bihar da gerriko berrixa jatzeko?

Hasieretako kolorietan 50 klase hartu bihar dira gutxienez gerrikoz aldatzeko. Beltza jatzeko, berriz, gutxienez urtebete egon bihar da gerriko marroiakin, eta hortik aurrera gradoz pasatzeko 2 urte, 3 urte eta hola.

#### Zein da juduaren jatorria?

Jigoro Kano izeneko japoniar batek sortu zeban 1882xan, aintzinako japonsu Jiujitsu-an oinarrituta. Jiujitsu, armauta edo armau barek dagan aurkako bati armarik barek egiten jakon eraso edo defentsa artiar deitzen jako.

#### Zela irabazten zaio judoan aurkariari?

Burua erabilixaz. Asmau bihar da aurkarixari mobimentu batzuk egin eragiten, desekilibrau eta lurrera botatzeko. Hortarako burua argi eukitzia da garrantzitsuena, fisikua baino gehiago.

#### Tatamiratik kanpo burrukarik egin dozu?

Ni lasaixa naiz eta zorionez ez; ez da naturala kalia burruka bila juttia, baina bateronbat burruka bila etortzen bajata defentsarako erabiliko dot.



**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE



**JATETXEA  
TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE



## Argazki zaharra



Iturria: Jose Mari Gómez.

## Lagun Maitea foball taldea

**A**rgazkian Lagun Maitea futbol taldeko jokalarixak ageri dira, 1953an. Futbol zelairik ez zeguanian partiduak frontoiko laugunian jokatzen ziran eta inguruko herrixetako taldiak be etortzen ziran eskualdeko txapelketetan parte hartzera. Argazkixan Lagun maiteakoak, sasoi hartan aurrian ibiltzen zen taldietako bat.

*Tente*, ezkerretik eskumara: Javier Artolazabal (+), Iñaki Oregi (+), Manolo Etxabe, Miguel Gallastegi, Santi Alberdi. *Makurtuta*: Enrique Placencia(+), Daniel Mugika(+), Marino Azkona eta Patxi Alberdi.

## Lehiaketa

### Urakapiñak...

**Aurreko aleko erantzuna**

*Ufala pasatu ostian baztarrian geratzen diran hondakinak dira, egur txikixak eta abar. Sasoi baten sutarako batzen ziran, sikutzen ziranian sutarako aproposak ziralako. 70. Hamarkada inguru arte bizimodua ibaiaren egiten zen Soraluzen.*

## HERRIAREN HISTORIA

### GALDERA

Ze urtetan egin zan saihebidia? → 1985  
→ 1989  
→ 1982

*Aukeratu erantzun zuzena.*

Deitu **943 75 13 04** ra  
edo e-mail bat bidal ezazu:

**[pilpilean@euskalnet.net](mailto:pilpilean@euskalnet.net)**



**SARIA** →

Fisioterapia saio bat  
**ORMAZABAL**  
FISIOTERAPIA ZENTRUAN

**SARIA**  
Edertasun tratamendu saioa Lilura Estetika Zentroan

**AURREKO ALEKO IRABAZLEA**  
Iñaki Iñarra



### GURE ZERBITZUAK

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

**ELIZPE**  
Hortz Klinika



- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

**ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)**

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

**TXOKO**  
**KAFETEGIA**



*Kafe ederra hartzeko txokorik onena!*

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789



# Ignacio Zuloaga B.H. Institutua



Ignacio  
Zuloaga

Jardiñeta, z/g  
20600 - EIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 20 83 49 Fax: 943 20 60 48  
E-mail: 012055aa@hezkuntza.net  
www.ignaciozuloaga.net

## BATXILERGOAK

- OSASUN ETA NATUR ZIENTZIEN BATXILERGOA  
+ TEKNOLOGIKO BATXILERGOA
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN BATXILERGOA
- BATXILERGO ARTISTIKOA  
(Deba eskualdeko zentru bakarra)

## HEZIKETA ZIKLOAK

### GOI MAILAKOA

- INGURUGIRO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

### ERDI MAILAKOA

- LABORATEGIA

## HIZKUNTZ EREDUAK

### HEZIKETA A ETA D EREDUETAN

(26 urteko tradizioa klaseak euskaraz ematen)

Datorren ikasturterako

**AURREINSKRIPZIOA**

**Apirilaren 24tik Maiatzaren 5era**

**MATRIKULA EPEA: Ekainaren 30etik Uztailaren 6ra**

## **EDURTZA** Kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua



**Karta enkarguz,  
jaunartzeak  
eta bataioak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

## **Juan Mari**

*Arraindegia*

*Eguneroko  
arraina  
eta konjelatuak*

Merkatu Plaza  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 24 40  
Partikularra 943 74 03 69



Javier Alonso Zelaieta  
K. Z. 20.000.434  
Nora Bastida Etxeberria  
K. Z. 20.000.736

## **HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13



## **ARRANO** *tabernia*

Telefonia 75 24 09

*"Giro euskalduna eta sanua"*

**ETORRI ETA GOZATU**



EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK  
**etxera**





# ELGOIBARKO BH INSTITUTUA 2006/07 IKASTURTEA

**Elgoibarko Institutua**

Arregitorre, 2

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: [bulegoa@elgoibarbhi.net](mailto:bulegoa@elgoibarbhi.net)

[www.elgoibarbhi.net](http://www.elgoibarbhi.net)




- ✓ Batxilerreko 5 ibilbideren artean norberaren interesen arabera aukeratzeko posibilitatea. (Zientifiko-teknikoa, Osasuna, Teknologikoa, Humanitateak eta Gizarte Zientziak)
- ✓ Azken 10 urtetan selektibitatea gure ikasleen %97k baino gehiagok gainditu du.
- ✓ Bailara guztiko 550 ikasle ditugu : aukera ederra inguruko gazteak ezagutzeko eta harreman berriak egiteko.
- ✓ Unibertsitaterako zein goi mailako hezkuntz ziklo formatiboetarako prestakuntza.

**BATXILERREKO AURREMATRIKULA** apirilaren 25etik maiatzaren 5era

**GURASOENTZAT BILERA IREKIA** apirilaren 25ean, arratsaldeko 19:30ean.

**IKASLEENTZAT ORIENTAZIO BILERA** apirilaren 26an, arratsaldeko 16:30ean.



# ARMERIA ESKOLA

**Goi Mailako L.H.ko Berariazko Institutua**

Isasi kalea, 36 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tel.: 943 20 32 44

[www.armeriaeskola.com](http://www.armeriaeskola.com) / [secretario@armeriaeskola.com](mailto:secretario@armeriaeskola.com)

**2006/2007 IKASTURTEA**

**HEZKUNTZA ESKAINTZA**

**"A" eta "D" EREDUAK (Gauzez eta Egunez)**

**BATXILERGOA  
ERDI MAILAKO  
ZIKLOAK**

**GOI MAILAKO  
ZIKLOAK**

ZIENTIFIKOA

MEKANIZAZIOA

EKIPO ETA INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK

PRODUKTU ELEKTRONIKOEN GARAPENA

MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA

PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA

INDUSTRI EKIPOEN MANTENIMENDUA

TELEKOMUNIKABIDE ETA INFORMATIKA SISTEMAK

ERREGULAZIO ETA KONTROL AUTOMATIKO SISTEMAK

**IZENA EMATEKO:**

**Batxilergo eta Heziketa Zikloetarako sarrera frogak,**  
apirilaren 24tik maiatzaren 5era (biak barne).

**Sarrera zuzeneko Heziketa Zikloak, ekainaren 1etik 7ra (biak barne).**

**Zikloen eskaintza partziala/sarrera-frogaren prestakuntza.**  
**Etengabeko eta langabetuentzako prestakuntza.**



MUGARIK GABEKO  
"TALDE EKINTZA"  
ZUREA ETA GUREA

